

noaua



"URTEOTAN EGINDAKO LANAREN EMAITZA ERAKUSTEKO UNEA IRITSI DA"


'Usurbil herri zainzailea' ekitaldia iragarri dute martxoaren 29rako / 06-07 or.

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Ostiralean, herri inauterien txanda; larunbatean, superheroiena / 08



NOAUA

"Orain arte, gure errepertorioan ez genuen emakumeek sorturiko kantarik" / 11



NOAUA

Elkargunearen eraikin berriak 'Arrobitxulo' izena eramango du / 12



NOAUA

Iñaki Errasti entrenatzaile lanetara mugatuko da aurten / 16



USURBIL
O P T I K A

4 Urteko
Garantia

Interes
Gabeko
Finantzaketa

*Banketxeak
onartzean

Entzumen
azterketa

DOAN

Entzun
telebista

eta mugikorra
zure audifonoetan




**PILARIK
GABEKO**

TEKNOLOGIARIK
AURRERATUENA

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



Tailandia

IRTEERA 2025eko irailan



Noaoak gidatutako
talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



**ZUREKIN BATERA
IREKITZEN DUGU
EGUNERO,**
zure negozioa
bultzatzeko



Susperregi Berria
kortse-denda,
1930az geroztik

LOKALIA

Dena tokiko merkataritzarako.
Dena tokiko merkataritzarentzat.

laboralkutxa.com/eu/lokaliala

LABORAL Kutxan geure aletxoa ipini nahi dugu, **tokiko merkataritzak** gure herri eta hirietako aktiborik handienetakoa izaten jarrai dezan.

LOKALIA laguntzeko jaio da, eta **irtenbide integrala** eskaintzen du, gauzak errazteko, lasaitasuna emateko eta saltoki txikien ezaugarri guztiak sendotzeko.



LABORAL
kutxa

Pentsiodunen mugimenduaren sinadura bilketa

"Pentsioak Osatzeko Euskal Sistema bat ezartzeko" Herri Ekimen Legegile (HEL) bat ari da sustatzen Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua, hartara, "14 ordain-saritan 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, lege bihurtu dadin". Horretarako sinadurak biltzen ari dira herriz herri. Usurbilen asteburuan aritu ziren Sutegi atarian atxikimenduak biltzen. Otsailaren 28an jarriko dute sinadurok biltzeko mahaia berriz, Sutegin, 19:30-21:00 artean.



Hainbat herritarrek bat egin dute jada Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduaren ekimenarekin.

Garbigune mugikorra, Aginagan

Otsailaren 27tik aurrera, garbigune mugikorra Aginagan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Martxoaren 6an osteguna, garbigune mugikorra Zubietara eramango dute.

Hurrengo ibilaldi osasuntsuak

Martxoaren 4an ez da izango astearteroko paseorik. Hilaren 11n, 18an eta 25ean egingo dira "Goazen kalera Usurbil" dinamikako hurrengo ibilaldi osasuntsuak, Zubietan, Usurbilgo erdigunean eta Aginagan, hurrenez hurren. 10:30-12:00 artean abiatuko dira tokian tokiko frontoitik.

Udal dirulaguntza deialdietara aurkezteko aukera

2025ean askotariko egitasmoak bideratzeko dirulaguntza deialdien oinarriak kaleratu ditu Udalak. Eskabideak aurkezteko epealdia zabalik duzue dagoeneko, kasu gehienetan, martxoaren 14ra arte. Beste dirulaguntza deialdietan parte hartzeko tarte gehiago luzatuko da.

Jokin Eizagirreraren erakusketa Guria tabernan

Jokin Eizagirrek jaietako maskota egiten du eta gabonetan, apaingarriekin edertzen ditu herri erdigunea eta auzoak. Margolaria ere bada eta bere hainbat koadro hautatu ditu eta Guria tabernan ipini ditu ikusgai. Erakusketa martxoaren 30era arte egongo da zabalik.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maribalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE

Zeruak eta lurrak (6)

Eszenak erraietaraino hunkitu zuen Helena, aitarekin haserretzeraino. Ez zuen ulertzen zergatik izan behar zuen gizonak horren zitala. Horrelakoetan, "handia zarenean ikusiko duzu", eta antzeko esaldiak bota ohi zizkieten. Hala ere, hamaika gauza ikusitakoa zen, eta beharbada, gainerakoen arazo zen horrela pentsatzea. Heldutzat zeukan bere burua Helenak, baina inguruko denek, oraindik, etxeko txikitzat. Horregatik pentsatu zuten haur txiki baten kasketaldia izango zela jauregitik alde egin izana.

Kasketaldiak kasketaldi, markesak ez zuen bere alaba txikia usurbildarren esku geratzerik nahi, eta premua bidali zuen haren bila, erakutsi zezala bere gradua.

Esan dezadan egia. Lehen itxuran etxe oneko mutila bazirudien ere, gabeziak zituen. Ez zen markesaren gustukoa, baina premua premu, eta berak gozatuko zuen ondorengotzaren zati handienaz. Katalina, orde, sutzen zen ideia horrekin. Nola ote horrelako "gizajo" batek heredatu beharra? Lepondoko zainak leher-tzekotan izaten zituen horrelako gairen bat ateratzen zen bakoitzean. Anaia jauregitik ateratzear zela, baina, itxaroteko esan zion. "Zoaz Adolfo-rekin, ordu hauetan ez da komeni bakarrik ibiltzea", esan zion eskailera burutik. Senargaiak ez zuen etxetik ateratze-

ko asmorik, baina barrabiletako mina gogoratu orduko konplitu zuen esana. Han joan ziren Etxebeste kalean gora etxeko gizonetako bi.

"Neska oso ona da nire arreba. Oso esanekoa. Eta familia maite du. Horregatik ez du nahi ni bakarrik egotea". Nola erantzun ez zekien Adolfo. Hura guztia egia zen norbait inguruan bazuen, baina arratsaldekoa eta gero, Katalinaren keinu bakoitzak beste esanahi bat hartu zuen. Atzerabegirakoaren misterioak. Neskak nahiko zukeen bere senargaia arreba txikiarekin bakarrik itzuliko balitz anaia Usurbilgo zulo ilunen batean ahaztuta. Eta inolako plan maltzurrik azaldu ez bazion ere, horrelako zerbait egiteko beharra sentitu zuen, itzalpean mugitzeko gai zela azaltzekoa, ehunesku zuriko kriminala izatekoa. Familia boteretsuak kanpora begira ziren bat, barrura begira, mundu gerra intimoa.

"Aizu, zuk ez al daukazu andregairik?", galdetu zion Adolfo. "Zu bezalako gizon gazteak ehundaka ezkongai izango ditu, seguru". Ez zion erantzunik eman, ez behintzat hitzekin.

**"LEHEN ITXURAN,
ETXE ONEKO
MUTILA
BAZIRUDIEN ERE,
GABEZIAK ZITUEN"**

Gauaren beltzean aurpegiaren gorritasuna nabarmena zen, halere, eta handik tira egin nahi izan zuen mutilak, baina etxeko premuak ez zuen hitzik askatzen, harik eta, presioaren presioz akaso, berea bestelako maitasuna zela esan arte. "Ez zara inoiz emakume batekin egon?", harriduraz beterik. Burua alderik alde mugitu zuen premuak. Adolfo ezin zuen sinetsi, bera baino zertxobait zaharragoa izango zen, eta itxuragatik bakarrik emakumez inguratuta behar zukeen, zer esanik ez bestelako kontuengatik. Bere gabeziak ezkutuan zeuden graduaren azpian. "Ba, hil baino lehen probatu behar-ko zenuke zer den emakume batekin ohean etzatea. Ze kristo! Gaur bertan!".

Informazioa lortzeko lekuri onena zela esanda, putetxe batera eraman zuen. Premuak ezin zuen sinetsi, eta halakorik ezin zutela egin esan zion, hura moralaren aurka zihoala eta halako sermoiekin bete zuen ahoa. Etxeko apaizari ikasi zizkion hitz haiek guztiak, baina jakingo balu nola zerabilzkien apaizak berak... "Begira, sos batzuegatik, jendeak jakin nahi duzuna kontatzen dizu, eta haragiagatik, dena kontatzen dute isilik egon nahi dutenek. Beraz, goazen!". Aitaren egin zuen putetxean sartu aurretik eta ondoren. Horren ondoren gertatuak nahiago ahaztu, baina bizi artean gogoratuko zituen.

Errenta aitortzeko kanpainaren datak

2024ko diru kontuak Ogasunarekin argitzeko datak aurreratu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak:

- Martxoaren 25etik aurrera: proposamenak webgunean ikusteko aukera izango da eta proposamenok postaz bidaltzen hasiko dira.
- Martxoaren 31tik aurrera: autolikidazio proposamenak onartu ahal izango dira.
- Apirilaren 3tik aurrera: Zergabidea plataformaren bidez errenta telematikoki aitortu ahalgo da.
- Apirilaren 4tik aurrera: errenta presentzialki aitortzeko txanda erreserbatu ahalgo da.
- Apirilaren 8tik aurrera: errenta presentzialki egiteko aukera.

Informazio gehiagorako:

gipuzkoa.eus
943 113 000

"Harpa Jotzen" hirugarrenez

Harpa jotzen hasiak dira berriz Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena. Izen bereko, "Harpa jotzen" izeneko poZkastaren hirugarren denboraldia estreinatu berri dute. "Txoko hone-tan, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umoregileek txorakeriak eta fundamentu gabeko gauzei tartea eskaintzen diete". Astero gai bat hartzen dute ahotan gonbidatu ezagunekin, umoretik beti ere.

EITB-k aurkeztu berri duen GUAU izeneko audio plataforma berrian entzun ahalgo duzue, helbide honetan: guau.eus/s/harpa-jotzen

Otar-Goxo
Elizakgaitak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiarrenea 6, Usurbil.

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiarrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

Patxi
bartzakariak EGUNERO
afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

Santuenea eta Amiri arteko bidea itxita, errepide ondoko zuhaitzak mozteko



"Lanok gauez egiten dira, trafikoari ahalik eta gutxien eragiteko".

Urtarrilaren 22an eta otsailaren 6an egin bezalaxe, astelehen honetan ere itxi egin zuten Santuenea Zubietarekin lotzen duen bide zati bat; Santuenea eta Amiri artekoa, hain zuzen. Gaueko 23:00etan hasi eta astearte goizaldeko 7:00etan irekitzekoak

ziren bidea. Tarte horretan, "bertako lur-jabeek errepide ondoko zuhaitzak moztu eta aterako dituzte, eta amaitu bezain pronto irekiko dute bidea", ohartarazia zuen Udalak. Lanok gauez egiten dira, "trafikoari ahalik eta gutxien eragiteko".

Eider Mendoza ahaldun nagusia udal gobernuarekin batu zen, Usurbilen



Aurreko astean batu ziren udalbatza pleno aretoan.

Otsailaren 21ean, Eider Mendoza Gipuzkoako ahaldun nagusia Usurbilgo udaletxean izan zen. Agurtzane Solaberrieta alkateak zabaldu du mezu baten bidez izan genuen bisitaren berri. "Usurbilgo proiektuez, hizkuntz politikaz,

aniztasunaren kudeaketaz edota gobernantza ereduaz jardun genuen", alkateak sare sozialetan zabaldu zuenez. "Garrantzitsuak dira gisako topaketak, egungo erronkek jardun partekatutako eta elkar-lana eskatzen digutelako".

Martxoko agenda oparoa izango da Sutegi udal liburutegian

Martxoaren 10ean, gaztelerazko literatura solasaldia
Martxoaren 10ean astelehenaekin, gaztelerazko literatura solasaldia. Ana Merinok gidatuko du saioa, 19:00etan hasiko da eta Monika Zgustováren *Soy Milena de Praga* liburua izango dute hizpide.

Martxoaren 18an, Ander Izagirre eta Zuhaitz Gurrutxagaren bisita
Martxoaren 18an asteartean, Zuhaitz Gurrutxaga futbolari ohia eta Ander Izagirre idazlea Sutegiko auditoriora hurbilduko dira. 18:30ean hasiko den solasaldian, elkar-

lanean idatzitako *Subcampeón* liburuaz arituko dira luze-zabal hizketan.

Martxoaren 28an, gazteentzako komiki tailerra 'Axi'-rekin
Martxoaren 28rako, aldiz, komiki tailer bat antolatu dute udal liburutegian. Arratsaldeko 17:30ean hasiko da eta Ainara Azpiazu "Axi"k gidatuko du. 8/9 urtetik gorako (LH4tik gorako) haur eta gaztetxoei zuzendua dago (DBH barne).

Saio honetan komiki bat egiteko oinarritzko ezagutzak eta baliabideak eskainiko



Martxoaren 28ko ikastarorako, aldeztatik eman behar da izena. ARGAZKIA: AXPI.

dira: biñetak, bokadilloak eta beste.

Komiki tailer honetako plazak ordea, mugatuak dira. Beraz, interesa duenak aurretik eman beharko du izena udal liburutegian bertan.

Oharra

Literatura solasaldiak gozagarriagoak dira liburuak aldeztatik irakurri izan badira. Martxoko bi solasaldietako liburuak liburutegian eskura daitezke.

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASAK • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILAK
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

NOAUA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA
• komertzial instalazioak • beira bikoitza • segurtasun beirak • ispiluak
• dutxa-itxiturak eta irristailuak • barandak • kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA **943 37 17 33- 610 45 93 45**

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!
www.noaua.eus



Zaintza ekosistema berri bat eraikitzen ari diren eragileetako ordezkariak, iragan astean Txirikordan eginiko agerraldian.

'Usurbil herri zaintzailea' ekitaldia martxoaren 29an

Zaintza ereduaren eraldaketa betean da Usurbil eta horren erakusleihu argia izango da prozesu honetan murgilduak dauden norbanako eta eragileek martxoaren 29rako antolatu duten 'Usurbil herri zaintzailea' ekitaldia. Agerraldi bidez aurkeztu zuten hitzordua iragan astean, Txirikordan.

Deialdian parte hartu zuten hitza hartutako Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta-rekin eta udal gizarte zerbitzuetako buru Maria Salsamendirekin batera, Hurbilago merkataritza elkarteak, Lahar Elkargoak, Arretak, Txirikordako bizilagunek, Egurtzegiko Eguneko Zentroak eta zaintzadun etxebizitzaren auzuneak, komunitate lantaldeak, Matiak, Zabalduz kooperatibak, zaintzaile profesionalak eta udal-langileak. "Urte luzeetako lanaren emaitza" aurkeztuko dute Sutegin hilabete barruko ekitaldian. Lanketa honen jatorrian, Usurbil "herri zaintzailea" bilakatzeko erronka dago, zaintzaren gaiari "dimentsio guztietatik eran-

tzun nahi diogulako". Gogora ekarri zuten, mende honetako erronka nagusietakoa dela honako hau, adierazle sozio-demografikoei adierazi beza. "Horrenbestez, gure herriak prestatu behar ditugu erronka horri erantzuteko".

Erronka horri misio bat jarria dio Usurbilgo herriak. "2030erako norbere bizitza

"URTE LUZEETAKO LANAREN EMAITZA" AURKEZTUKO DUTE SUTEGIN

proiektuari erantzungo dion zaintza eredu integral eta duin lortzea, erantzukidetasuna, eragileen arteko lankidetzeta eta zaintza langileen profesionaltasuna eta duintasuna ardatz izango duena ". Misio horri helburuok finkatuak dizkiote; "65 urtetik gorako pertsonen %25ek zaintza planak martxan izatea, Usurbilgo

"EDUKI BERRITUAK DITUGU, ANBIZIO HANDIKO PROIEKTUA. ERALDAKETAN ARI GARA"

auzoetan martxan jarri nahi ditugun zaintza sareetan %25a gutxienez gizonezkoak izatea, beraz dei bat gizonezkoei zaintza lanetan eta arduretan parte hartzera. Hirugarrenik, etxeko zerbitzua jasotzen dutenen kopurua eta zaintzarako prestazioa jasotzen dutenena orekatzea. Azkenik, zaintza langile eta familien %50a gure zaintza ekosistemaren parte izatea ". Helburu horiei begira, "zaintza eredu berri baterako bide-orria finkatu zuen udalak eta martxan jarri genituen lan ildo ezberdinek ahalbideratu dute pertsonak ardatz duen arreta ereduaren inplementatzea eta horren jira-biran eraiki beharreko zaintza ekosistema bat eraikitzea eta artikulatzea".

Dokumentala

Horixe da martxoaren 29ko Sutegiko ekitaldian aurkeztu asmo dutena. "Eduki berriak ditugu eskuartean, anbizio handiko proiektua. Eraldaketan ari gara eta hau guztia ez litzateke posible, hemen bildu garen guztiok helburu berekin eta elkarlanean arituko ez bagina. Orain, hau dena gizarteratzeko ordua iritsi da. Beraz, herritarren zain geratzen gara".

Lau zatitan banatuko dute hitzordua. Hasteko, zaintza eredu honen eraldaketan parte hartu dutenen lekukotzak biltzen dituen "Usurbil, herri zaintzailea" dokumentala aurkeztuko dute. "Mimo handiz egin dugu eta eskerrak eman nahi dizkiegu kamera aurrean jartzera animatu diren guztiei", adierazi zuten agerraldian. "Ziur gaude euskarri garrantzitsu bat ekoitzi dugula Usurbilerako ez ezik, bide hau egin nahi duten beste herrietarako ere".

Bizi-planak

Dokumentala proiektatu ostean, "pertsona bat, bizi plan bat" helburu duen arreta eredu eraldatua aurkeztuko dute. Zaintza behar duen pertsona erdigunean kokatuko duena eta bere nahi, erabaki eta lehentasunak aintzakotzat hartuko dituen. Horiei guztiei "erantzungo dien arreta eredu eskaintzeko gai izan nahi dugu" eta horretarako, ezinbestekotzat jotzen dute "zaintzak zerbitzuen integritasunetik eskaintzea eta komunitateak eskaintako aukerak" baliatzea. Eraldaketa honek "begirada aldaketa" egitea eskatzen die. "Gure helburua da, iraupen luzeko zaintza prozesuetan jarraikortasuna bermatzea, zaintza behar duen pertsonaren bizitzak zentzua izaten jarraitzea pertsonaren bizi-proiektuan hausturarik eragin gabe, eta noski, bizitza duina eta bizigarria ahalbidetuz". Laburbilduz, nabarmendu zuten, "pertsona bakoitzari egokitutako eta modu parte hartzailean osatutako bizi-planak eskaintzea da" xedea.

Begirada aldaketa horretan sakontzeko Matiaeren laguntzarekin etengabeko formazioa jaso dute udaleko gizarte zerbitzuetako langileek. "Begirada aldatzen, tresna berriak eraikitzen eta zaintzen alorrean ditugun zerbitzu ezberdinen artikulazioa, koordinazioa eta sistematizazioa bermatuko



Martxoaren 29ko ekitaldiko deitzaileak, iragan asteko agerraldian.

duen antolaketa eta egitura berri bat eratu dugu", berri eman zuten. Usurbilgo zaintzen ekosistemaren egitura berria ere aurkeztuko dute martxoaren 29ko ekitaldian. Berri eman zuten, gaur egun, "lantalde ezberdinak ditugu martxan eta modu ekosistemikoan eta koordinatuan lan egiteko mekanismoak ari gara eratzen". Eta urrats gehiago ematekotan dira. "Martxoaren 29tik aurrera, bizi planak gizarteratzeko kanpainari ekingo diogu poliki-poliki, gure lana egiteko moduak aldatzearekin batera".

HurBilduz auzo-zaintza proiektua

Martxoaren 29ko ekitaldia, Usurbil herri zaintzailea dela irudikatzen duten hainbat proiektu aurkeztuta amaituko dute. "Txirikordako ordu bantuen egitasmoa, merkataritza

zaintzailea, HarEman proiektua edo gazte mugimenduak gazteen osasun mentalaren inguruan egindako lanketak aurkeztuko ditugu" eta haiekin batera, HurBilduz auzo-zaintza proiektua. Horretan dihardu lantalde batek. Epe motzean abiarazi asmo dute egitasmoa, "Zabalduz gizarte ekimeneko kooperatibarekin sinatutako hitzarmenari esker". Gogorazi zuten, "denok behar dugu zainduak izan, elkar zaintza beharrezkoa dugu". Dimentsio asko ditu gaiak agerraldian oroitarazi zuten. Zaindua izateko behararen eragileak ere askotarikoak dira; "adina, dependentsia, bakardade ez hautatua, osasun mentalaren okertzea, prozesu migratorio gogorrak bizi behar izatea. Azken batean, egoera askok sortzen dituzte zaurgarritasunak, hauskortasunak eta horretan sinesten dugu

komunitateak asko eman dezakeela".

Zaintza, ongizatea eta komunitatea elkar lotuta daudela gogorarazi zuten, "komunitate bateko kide izateak ondo sentiarazten gaituelako guztiok". Helburu horrekin abiaraziko dute laster, auzo-zaintza proiektua.

"Usurbil herri zaintzailea" ekitaldia

Eguna: martxoak 29, larunbata.

Ordua: 11:00-13:30.

Tokia: Sutegiko auditorioa.

Ekitaldiaren edukia:

- 1-'Usurbil, herri zaintzailea' dokumentalaren aurkezpena.
 - 2-Arreta ereduaren eraldaketa: bizi-planen aurkezpena.
 - 3-Usurbilgo zaintza ekosistemaren egituraren aurkezpena.
 - 4-Komunitatearen ekarpena, martxan dauden proiektuen aurkezpena: Txirikorda, HurBilduz auzo-zaintza proiektua, HarEman, merkataritza zaintzailea, gazteak eta buru osasunaren lanketa.
 - 5-Amaieran, mokadutxo.
- Gonbidapenak:** usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.
- Antolatzaileak:** Herri Zaintzailea Usurbil, Usurbilgo Udala.

"GEURE HELBURUA DA, IRAUPEN LUZEKO ZAIN-TZA PROZESUETAN JARRAIKORTASUNA BERMATZEA"

"MARTXOAREN 29TIK AURRERA, BIZI-PLANAK GIZARTERATZEKO KANPAINARI EHINGO DIOGU"



'Urde badator' herri-kalejira ostiral honetan arratsaldeko 18:30ean abiatuko da Agerialdetik.

Mozorro festaren atarian

Inauterien atarian gara dagoeneko. Eguneroko janzkera alboratu eta egun batez, bestelako pertsonaien azalean sartzeko ospakizunak hemen ditugu. Mozorrotu eta festa giroan plazaratzeko bi egun izango ditugu aurten; otsailaren 28a eta martxoaren lehena.

Hasteko, tokiko inauteriez gozatzeko aukera izango dugu ostiralean. "Urde badator!", iragarri digute Orbelditik eta harekin Usurbilgo herri inauteriak. Ostiralean helduko da gure artera, otsailaren 28an, herriko dantza taldeak eragile gehiagorekin antolaturiko herri kalejiraren eskutik. Zakuak jantzi eta herri inauteriokin bat egiteko deia egin dute.

Agerialdetik abiatuko da kalejira ostiral arratsaldeko 18:30etan. Aranerrekatik, Ugartondo eta Kalezarrera joko du gero. Handik herri erdigunera jaitsi eta Mikel Laboa plazan amaituko da ekimen hau. Bidean, hainbat geltoki izango ditu herri kalejirak eta haietako bakoitza, dantza, musika eta ezusteko gehiagorekin girotuko dute.

Urderez gain, bost pertsonaia eta istorio bat sortu dute, ostiraleko herri kalejiran plazaratu nahi dutena. "Gure asmoa, herri inauteri hau errotzea da", aurreikusi dute dantza taldetik.

Ostiraleko Usurbilgo herri inauterien ondotik, superheroiarena izango dugu biharamuna, martxoaren 1a.

Ikastetxeak

Ospakizun giroko asteburuan, ohi bezala, gaztetxoenen eskutik murgilduko gara. Izan ere, ikastetxeek ere inauteriekin bat egingo dute jaialdi horrekin otsailaren 28an.

Zubietako eskolan, bazkalostean kalejira egingo dute herri erdigunean barrena. Udarregi ikastolakoak goizean hasiko dira girotze lanetan. HH-koek dantza saioa eskainiko dute Mikel Laboa plazan. Segidan, desfilezera irtengo dira LH eta DBH-koak. Horren amaieran, DBH-koek dantza ikuskizuna eskainiko dute Oiardo kiroldegian. Haien lekukoa hartuko dute LH-koek toki berean, bazkalostean.

Kiroldegiko emanaldiotarako zenbait ohar plazaratu ditu Udarregi ikastolak. Batetik, ikusleak kiroldegiko zelai aldetik sartuko dira. Sarrera

ikuskizun bakoitza baino hogeitu minutu lehenago irekiko dute. DBH-ko ikuskizunerako sarrera librea izango da. Aldiz, arratsaldeko LH-koen emanaldira joateko "ikasle bakoitzari, ikastolan bertan txartel bana eman zaio". 55 sarrera soberan geratu ziren iragan astean. Galdetegi bidez senideei eskuratzeko aukera eman zitzaion. Agortuak daude jada.

Azkenik, Aginagako eskolan aurtengoan ez dute inauterietako emanaldirik antolatuko. "Aurten, inauteri emanaldia bertan behera geratu da, hezkuntza publikoko langileak grebara deituak daudelako".

Inauteriak ikastetxeetan

Zubietako eskola

Otsailak 28, ostirala

• 15:30 Eskolan hasi eta frontoi edo plaza inguruan amaituko den kalejira Zubietako herri erdigunean barrena.

Aginagako eskola

• Hezkuntza publikoko greba egunak tarteko, ospakizunik ez dute egingo.

Udarregi ikastola

Otsailak 28, ostirala

• 10:30 HHko dantza saioa Mikel Laboa plazan. Eurria bada, ikastolako frontoian egingo dute.

• 11:00 DBHko eta LHko desfilea kaleetan zehar.

• 11:45 DBHko dantza ikuskizuna kiroldegian.

• 15:30 LHko dantza ikuskizuna kiroldegian.

• Oharrak:

-Kiroldegiko zelaiaren kanpo aldetik sartuko dira ikusleak.

-DBHko ikuskizunerako sarrera librea izango da, aforoa bete arte. Arratsaldeko LHko ikuskizunerako, aldiz, LHko ikasle bakoitzari, ikastolan bertan txartel bana eman zaio.

Inauteri Festa Usurbilen

Otsailak 28, ostirala

• 18:30 Usurbilgo inauteria. Urde badator! Herri-kalejira Agerialdetik abiatuta. Mozorrotu eta etor zaitez gurekin Usurbilgo inauteriaz gozatzera!

• Ibilbideko geltokiak: Agerialde, Aranerrek, Txirikorda, Kalezar, babarrun formako biribilgunea, Mikel Laboa plaza.

• Pertsonaiak: Urde, lamiak, anguleroak, harrapariak, zakuak, adarjotzaileak.

Martxoak 1, larunbata

• Mozorrotzeko gaia: Superheroiak.

• 18:00 Burrunbazale txaragarekin kalejira.

• 22:30 Itzal erromeri taldearen emanaldia frontoian.

• Antolatzaileak: NOAUA! K.E. eta Orbeldi dantza taldea.

• Laguntzaileak: Zumarte Musika Eskola, Usurbilgo Euskal Kantu Taldea, Ziortza Gazte Elkartea, Txirikorda eta Belmonte Auzo Elkartea.



Euskaraldiaren sustatzaileek iragan astean Donostian eginiko agerraldia.

Euskaraldian izena emateko garaia iritsi zaie entitateei

Maiatzaren 15etik 25era egingo den laugarren Euskaraldian entitateek izena emateko epea zabalik dute. Aukeran izango dute ariketa sozial honetako inplikazio maila. Usurbilgo batzordetik parte hartzeko deia egin diete herriko entitateei.

Euskaraldia entitateetan nola hedatu eta landu daitekeen argitzeko agerraldia egin zuten iragan astean Donostian. Gogorazi zuten, maiatzaren 15etik 25era egingo den ariketa sozialean entitateok "zeresana eta zeregina" izango dute, Ahobizi eta Belarriprest guztiekin batera. Denei parte hartzeko deia egin zieten Euskaraldiaren bultzatzaileek.

Lanketan sakontzeko aukera
Euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan aritzea xede duen ekimen honetan entitateak zeintzuk izan daitezkeen gogorarazi dute. "Entitateak aipatzen direnean askotariko eremuak barnebiltzen ditu,

izan ere, lantokiak badira entitate, baina baita kirol edo kultur elkarteak, eta denda edo tabernak ere". Entitateek Euskaraldian parte hartzeko inplikazio maila hautatu ahal izango dute laugarren edizio honetan. "Oinarrizko egitekoak aurrera eramateaz gain, euskararen erabileran bestelako urratsak emateko aukera ere izango dute". Izan ere, Euskaraldia prestatu, ikusgarri egin eta horren berri ematea izango dira haien oinarrizko egitekoak. Baina "horiez gain, bestelako pausoak eman nahi dituzten entitateek, lanketa sakonagoa egiteko aukera baliatu dezakete izena eman ostean. Hori aukeratuta, koordinazio oro-

korretik baliabideak eskainiko zaizkie aparteko lanketak egiteko, besteak beste".

Gutuna Usurbilgo entitateei

Entitateek, tartean Usurbilgoek ere bai, izena emateko epealdia zabalik dute. Entitateon parte hartzea sustatzeko lanketan ari da Usurbilgo herri batzordea ere. Aurreko edi-

"ENTITATEAK AIPATUTAKOAN, ASKOTARIKO EREMUAK BARNEBILTZEN DITU"

zioetan parte hartutako Usurbilgo entitateek gutun bana jasoko dute, jaso ez badute jada. Bertan nola parte hartu argitzen da baita izena emateko xehetasunen berri eman ere, laugarren edizioarekin bat egitera gonbidatzearekin batera. Argibide gehiago behar duenak bideotatik jaso ahalko ditu xehetasun gehiago: usurbil@euskaraldia.eus / 943 371 999.

Entitateen partehartzea

Oinarrizko egitekoak:

- 1-Informatu: Belarriprest eta Ahobizi rolen inguruko informazioa entitateko kideen artean zabaldu, eta izena ematera animatu, horretarako erraztasunak jarrita.
- 2-Prestatu: entitateek kideei euskararen erabilera sustatzeko prestakuntza eskaintzea aztertuko dute. Horretarako baliabideak izango dituzte webgunean.
- 3-Euskaraldia ikusgarri egin: izena ematen duen entitateak ariketa badatorrela ikusgarri egingo du, espazioak apainduz, ekintzak antolatuz, barne zein kanpo komunikazioan hartutako neurriak edo egingo diren ekintzak jakinaraziz...

Lanketan sakondu nahi dutenen egitekoak:

- 1-Ariguneak sortu: euskaraz lasai aritzeko guneak dira.
 - 2-Komunikazioak euskaraz egin: bilerak, mezuak eta bestelako komunikazioak euskaraz zabaldu.
 - 3-Mintzodromoak antolatzea, entitate barruan lasai euskaraz hitz egin ahal izateko.
 - 4-Mintzatratuak adostea entitateko kideen artean.
 - 5-Hiztegi kutxa; entitatearen arloko euskarazko hiztegia ezagutu eta erabiltzeko.... Azken lanketa hauek egiteko, intraneteko sarbidea eta aholkularitza izango dituzte eskura entitateek.
- Izena emateko eta informazio gehiagorako: euskaraldia.eus

Amaia Zubiriarentzat Monzon-Ganuzak Saria

"Euskal Herria, euskara eta euskal kultura bere bizitzaren ardatz" izan dituzten herritarrak omentzen dituzte sari honen bitartez.

"Euskara eta, oro har, euskal kultura, ikertzea, zabaltzea eta hauek sustatzeko beste edozein jarduerak burutzea" xede duen Bergarako Olosa Dorreak eta udalerri bereko Udalak aurtengo Monzon-Ganuzak Saria Zubietan jaiotako abeslari Amaia Zubiriari ematea erabaki dute.

Telesforo Monzon eta Josefa Ganuzari gorazarre egiten dio sari horrek. "Telesforo Monzon heriotzaren 40. urteurrenean, berak eta Josefa Ganuzak bezala, bere bizitzaren ardatz Euskal Herria, euskara eta euskal kultura izan duten herritarrak omentzeko saria" da aipaturikoa. Bere bidez, "Euskal Herriari, bere kultura, hizkuntza, historia eta etorkizunari bizitza osoko

lana eskaini dioten herritarrak omendu nahi dira".

Kontuan hartu diren baloreak

Saria nori eman erabakitzerakoan, kontuan hartzen dituzte "Telesforo Monzon eta Josefa Ganuzaren baloreak, hala nola, herri honekiko maitasuna, euskarari eta kulturari emaniko lehentasuna, Nafarroak euskal historian izan duen garrantzia, edo eta batasunaren balioa".

Hilabete barru jasoko du

Aurreko edizioetan, Jose Mari Esparza, Xabier Amuriza, Jose Luis Elkoro eta Libe Goñi saritu zituzten. Oraingoan, Zubiria omenduko dute sari honen bidez martxoaren 27an herri horretako Seminarixoa



Bergarako Olosa Dorreak eta Bergarako Udala dira sari honen sustatzaileak.

aretoan. "Euskal Herria kantuz beteriko bizia eskaini dion utopikoa" da omendua, sari horren sustatzaileen esanetan.

Zubiriak jasoko duen saria "sinbolikoa izango da, eta Telesforo Monzon zein Josefa Ganuzaren balioak ordezkatzeko dituen obra artistikoa bat izango da. Saria euskal

artista berriak sustatzeko erabiliko da. Urtero artista berri bati eskainiko zaio eta horrela saria bera euskal artista berrien sustapenerako eta euskal kulturgintza hauspotzeko ekimen bihurtuko delarik. Modu horretan belau-naldien arteko zubi lana eraiki nahi dugu".

Eztanda Artzabalgo parkean

Eztanda handi bat entzun zen otsailaren 19an, eguerdiko 13:00ak baino lehen, Artzabalgo parkearen ondoan, Borda-berri kalera ematen duen aldean.

Eztandak sua piztu zuen bertako landaretza lehorrean. Dena den, sutea berehala amatatu zuten Xarma eta Artzabal ta-bernetako langileek.

Etxafuego bat zirudiela zioten ezbeharragertutik entzun zuten lekuko batzuk. Udaltzaingoa berehala bertaratu zen gertatutikoa argitzera.



Artzabalen, Borda-berri kalearen ondoan piztu zen sutea.

Ostiral honetan, Sareren mobilizazioa

Hilabeteko azken ostiralean egin ohi duen bezala, Sarek euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko elkarretaratzea deitu du. 20:00etatik aurrera, Mikel Laboa plazan.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA
· PLATER KONBINATUAK ·
· BOKATAK · PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

EROSKI/city
943 361182
kale Nagusia 10, USURBIL



Jon Imanol Etxabe irakaslea entseguak amaitu berritan, Zumarte eraikineko korridorean.

"Gure erreperitorioan ez geneukan emakume bakar baten obrarik"

JON IMANOL ETXABE KANTARIA, ZUZENDARIA

Emakume musikariak goraiatzeko kontzertua antolatu du Zumartek martxoaren 5erako, Kalezarko ermita txikian. Jon Imanol Etxabe kantuko irakasle eta abesbatzen zuzendariaren ideia izan da. Kontzertuan Zumarteko abesbatzak eta kantu modernoko 10 ikaslek hartuko dute parte.

Emakume konposatzaileen obrak plazaratuko dituzue.

Musikenen ikasi nuen kantu-ko gradua eta orain masterra egiten ari naiz. Arlo batean eta bestearen artean, hirugarren aldia da Eresbiletik pasatzen naizena, Euskal Musikaren Artxibotik. Errenteriko artxibategi horretan musikarekin lotutako denetariko dokumentazioa dago. Aldi bakoitzean, zerbait ezberdina egon naiz aztertzen. Azken aldiz joan nintzenean, ikasturte honen hasieran, María Luisa Ozaitaren lanekin egin nuen topo. 1939an Barakaldon jaioetako emakume bat izan zen. Bisi-tako irakasleak emakume garrantzitsua izan zela jakina-

razi zidan; *Real Sociedad Vascongada y Amigos del Pais*-eko kide izan zen eta Espainiako lehen elkarte sortu zuen emakume musikariak biltzen zituena. Konposatzailea, abesbatza zuzendaria, pianojolea... denetik egiten zuen, eta dena ondo. Musika-rekiko berebiziko grina zuen;

"SORGINAREN FIGURA HORI GORAI PATU NAHI GENUEN, SORGIN, SORTZAILE IKUSPEGITIK"

Gerra Zibilaren ondoren jaio-ta, oso aurreratua zen. Bere artxiboan bila ibilita, partitura pila bat aurkitu genituen, eskuz egindakoak eta editatu gabe. Interesgarria iruditu zitzaidan horrekin zerbait egitea, eta Eresbiletako zuzendariarekin hitz eginda, emakume dezente zeudela kontatu zidan,

"AMERIKAKO ESTATU BATUETAKO GAUR EGUNGO HIT ASKO EMAKUMEK IDATZIAK IZAN DIRA"

konposatzaileak. San Sebastian egunez, artxibora bueltatu eta programa prestatzen hasi nintzen abesbatzarekin abesteko. María Luisa Ozaita, Nekane Lasarte, María Begoña Díez Azpeitia, Eva Ugalde, Inge Conde... horien lanaketa moldaketak bildu ditugu programatxo bat egiteko haur, nerabe zein helduekin. Hiru abesbatzek hartuko dute parte eta lehen zatian kantu modernoko ikasleek ere parte hartuko dute. Euren ere emakumeek idatzitako musika abestuko dute.

Emakume musikariei egindako omenaldia izango da, beraz.

Sorginaren figura hori gorai-patu nahi genuen, sorgin sortzaile ikuspegitik ulertuta. Abesti modernoetan kantautore ugari dauzkagu egun: Izaro, Idoia Asurmendi, Adele, Amy Winehouse... beste asko daude ustez emakumeen sorkuntzak direnak, emakumeek abesten dituztelako, baina gizonen sorkuntzak direnak, eta alderantziz. Estatu Batuetako gaur egungo hit asko emakumeek idatziak dira. Idatzi eta enkantera eramaten dituzte abeslari handientzat. Sia abeslariak hori egiten zuen, eta orain jauzia egin du kantautore izatera.

Programaz gozatzeko zita Kalezarko ermitan izango da.

Martxoaren 5ean, arratsaldeko 7etan, Kalezarko ermita txikian izango da kontzertua, Zaharren Egoitzaren aurrean dagoen ermitatxo horretan. Ordubete inguruko saioa izango da. Kantu modernoko 10 bat ikasle eta hiru abesbatzarekin osatuko dugu kontzertua. Esan beharra dago lotsatuta jabetu garela orain arteko gure erreperitorioan emakume bakar baten lanik ere ez geneukala. Abesti guztiak berri-berriak izango dira. Asmoa da gure ohiko erreperitoriora batzuk gehitzea, eta halako kontzertuak errepikatzea. Animatu!



Elkargunearen egitasmoak orain arte egindako bidez mintzatu ziren eragile sustatzaileak Sutegin.

Arrobitxulo elkargunea aurkeztu dute

"Denbora luzez landu, amestu eta borrokatu dugun proiektua" aurkeztu zuten otsailaren 22an Sutegin; izena, itxura eta mamia definitu dioten Elkargunea. Orain arte eginiko lanketa eta aurrera begirako erronkez aritu ziren sustatzaileak, ikuskizun kutsu nabarmeneko hitzorduan.

Arrobitxulo, gaztetasunetik astialdia eta kultura eginez. Horixe duzue Elkarguneak aurrerantzean izango duen izena. Isilpean izan eta iragan larunbatean ezagutarazi zuten herri egitasmo honen sustatzaileak Sutegin, ikuskizun ekitaldian.

Proiektuarengainerako ezauzgarrien antzera, izena ere erabakitze prozesu baten bidez hautatu dute. Bilketa lau bi-deetatik egin zuten; Aztarrikak iaz antolariko Gazte Egunean bildutako ekarpenen edota Ziortza gazte elkarteak zein Gaztelekuak hainbat saioetan kideen eskutik jasotako en-arte erabaki behar izan zuten. Baita herrian jarritako postontzietan herrikideek eginiko ekarpenen artetik ere. Postontzietan bidez, guztira 42 proposamen helarazi zituzten. Haie-tatik guztietatik talde eragileak

Arrobitxulo izena hautatu zuten. Gogoan izan, Udarregi ikas-tola pareko zelaian kokatuko da Arrobitxulo. Zelai hau inguratzen duen kale baten ize-na hartuko du, honenbestez; Izar Etxe eta Munalurra lotzen dituenarena. Leku izen bat lehenestea izan zen Elkargu-neko sustatzaileen esanetan, Arrobitxuloren alde egiteko motiboetako bat. Horrez gain, inguruko ikasle hainbat era-karri izan dituen inguruko harrobiari ere gorazarre egin

nahi izan zioten. "Sinbolismo polita iruditzen zitzaigun ga-raiko ikasleak harrobi bila joatea. Gaur egun, harrobira joatea kultur sorkuntzara edo gazte agenda baten baitan". Sonoritatearen ikuspuntutik ere ontzat eman zuten izen hau.

Izenari, iruditeria, marka erantsi diote. Egilea, Malen Aierbe Zubeldia herrikide di-seinatzailea izan da. "Arrobi-txulo izenak berak esanahi handia zuen. Horregatik ga-

rrantzitsua iruditzen zitzaidan, markan bertan, oinarria ere izena bera izatea. Horretarako tipografia pertsonalizatua sortu dut", azaldu zuen Aierbek. Izenetik hasi eta alfabeto osoa osatu du, "beste baliabi-de batzuetan irudikatu dadin marka bera", kolore biziekin, "Arrobitxulo bera bizirik da-goien marka bat izango delako eta horrez gain, beste hainbat kolore osagarri ere erabili di-tugu, pegatinetan ikusiko ze-nituztenak egunotan herrian".

Lankidetzaren emaitza

Elkarlanak ahalbidetu du herri egitasmo honen garapena. Abiapuntutik gaur arte eginiko bidea marraztu zuten larun-bateko ekitaldian. 2020an hasi zuen bide hau Aztarrika gazte asanbladak espazio baten fal-ta zuela agerian utzitako gal-deketarekin eta kulturekitaldiak zutik ikusteko gune baten beharra azaleraturiko Kultur-gunearen bilera errondarekin. 2022-23 ikasturtean hasi ziren biltzen herri egitasmo honen sustatzaile nagusi Aztarrika, Gaztelekua, Ziortza eta Kultur-gunea. 2023an, udal gobernu taldeari aurkeztu zioten ordu-ra arte landutako txostena eta Udalak egitasmo hau garatze-ko konpromisoa hartu zuen. Iaz, Elkargunea diseinatzeko parte hartze prozesua bidera-tu zuten Elhuyarrekin. Gabo-netako "Gero Bat Gaurdanik" topaketek plazaratu zuten ordura arteko bidea.

Lankidetzaren horren beste mu-garri bat izan zen, beraz, hila-ren 22ko ekitaldia. "Benetako proiektua lau eragileen arteko elkarlana da. Topaketetan argi geratu zen; lau eragileok elka-rrekin lan egiten dugunean, eragina biderkatu egiten da". Etorkizuneko eraikina helburua ez, tresna izango dela gogora-razita, bide horretan sakontze-ko asmoa agertu zuten aurre-ra begira. Horrekin batera, kudeaketa eredu definitu beharra dute; "nola kudeatuko den gune hau, izaera desber-dineko eragileek osatuko du-

**"GAINERAKO
EZAUGARRIEN
ANTZERA, IZENA
ERE PROZESU
BATEN BIDEZ
HAUTATU DUTE"**

**"LAU ERAGILEOK
ELKARREKIN LAN
EGITEN DUGUNEAN,
ERAGINA
BIDERKATU EGITEN
DA"**

—> guna. Udala ere tartean dago. Elkarren arteko harremanak, finantziazioa, kudeaketa eredua, izaera juridikoa..." definitzen joateko martxoaren 22an Txirikordan deitutako hurrengo asanbladan biltzeko deia egin zuten.

Arrobitxulo

Ezaugarriak

- Elkargunea izango da, herrian, herritik eta herriarentzako proiektua.
- Adin-mugarik gabekoa.
- Ekipamendu komunitario izaera izango du.
- Gazte astialdia garatuko du, sormena bermatuko du.
- Hainbat balio sustatuko ditu (segidan aipaturikoak).
- Usurbilen erreferentziazko gune bat izan nahi du, bizia eta irekia.
- Eragile berriak erakartzea sustatuko dute, "ahalik eta komunitarioena izatea".

Helburu nagusiak

- Sen komunitarioan aritzea.
- Elkarlanean jardutea herriko eragile, norbanako eta sortzaile desberdinen artean.
- Euskal kultur gintza transmititu eta hauspotzea, euskara oinarritzat hartuta.
- Kultur eta aisialdi eskaintza zabala bermatzea.
- Gazteen beharrak asetzea.

Baloreak

- Burujabetza, ekologia, feminismoa, euskaltzaletasuna, elkarlana, parte hartzea, inklusioa, espazio segurua izatea, sormena eta komunitate izaera duena.

Espazioa

Herrian jada badauden baliabideak bikoiztea saihestu nahi dute. Alegia, egun "asetzen ez diren beharrei erantzuteko espazio bat" izatea nahi dute Arrobitxulo.

Barne-espazioa

Iaz eginiko parte hartze prozesuko filosofiarekin bat, era-



Elkarguneak batutako sortzaileek, egitasmorako sortutako abestia elkarrekin kantatuz amaitu zuten Sutegiko ekitaldia.

bilera aniztasuna sustatu eta unearen araberako beharrei erantzuteko moduko hiru espazio diseinatu dituzte:

1-Areto nagusia: edukiera handikoa, ekintza jendetsuak egitea ahalbidetuko duena, gazte mugimenduaren erreferentziazko gunea izango dena kontzertu edota asanbladetarako, oholtza, soinu ekipo eta abarrekin. Intsonorizatu egongo da.

2-Aisialdi gunea: Gaztelekuko eta Ziortzako nerabe eta gazteen espazio libre eta irekia. Espazio modularra izango da, behar desberdinen arabera moldagarria izango dena eta jarduera desberdinak egiteko aukera emango duena. "Bertan, sofak, aulkiak, mahaiak... hainbat gauza egongo dira".

3-Gune ezberdinetan banatutako sormen gunea goiko solairuan: soinu gunea musika taldeak entseatzeko edota

balizko irrati baterako, gune digitala ikus-entzunezko jardueretarako, ispilu gela dantza eta antzerkirako eta gune narratsa arte plastikoetarako. Espazio hau sortzaileekin, herritarrekin definitu nahi dute.

Kanpo-espazioa

Barne-espazioa kanpokoarekin lotua egongo da. Modu horretan diseinatu dute erakina. Ondorioz, "kanpoko belardi zoragarri horretan jarduerak egiteko aukera" izango da.

Barne-antolaketa

Talde motorea:

- Astean behin edo bi astean behin bildu asmo du.
- Eguneroko kudeaketa, gobernantza eta balioen jarraipena egingo du.
- Komunikazioaz, materialaz edo garbiketaz arduratuko dira.

- Eragile aktiboek ordezkari eta kideek osatuko dute.
- Haien artean, txandaka aldatzen joango dira.

Batzar orokorra:

- Talde motorraz haratagoko ikuspegia eta ahotsa izango du.
- Urtean hiruzpalau aldiz bilduko da.

Lau erabiltzaile mota:

- 1-Kideak: eragile batean egon gabe erabakietan eta kudeaketa gunean parte hartu ahaliko dute.
- 2-Eragile aktiboak: jarduerak bertan egingo dituzte eta egunerokoan Elkargunea erabili ahaliko dute. Erabakietan eta kudeaketa gunean parte hartu ahaliko dute.
- 3-Aktiboak ez diren eragileak: erabakien eta kudeaketa guneetan ez dute parte hartuko baina ekintza puntualetan erabili ahaliko dute Elkargunea.
- 4-Herritarrak: nahiz eta erabakien eta kudeaketa guneetan ez hartu parte, egunerokotasunean bertan egindako ekintzetan parte hartu ahaliko dute.

Kudeaketa

Aurten zehaztuko dituzte kudeaketa ereduaren oinarriak.

"ERAGILE BERRIAK ERAKARTZEA SUSTATUKO DUTE, "AHALIK ETA KOMUNITARIOENA IZATEA"

"EGUN ASETZEN EZ DIREN BEHARREI ERANTZUTEKO ESPAZIO BAT IZATEA NAHI DUTE ARROBITXULO"



Arrobitxuloren aurreproiektua ere aurkeztu zuten otsailaren 22ko Sutegiko ekitaldian.

Lekuan erroturiko aterpea

Elkargunearen herri proiektuak leku hartuko duen eremuari buruz eta bertan altxako duten eraikinaren inguruan mintzatu ziren larunbatean Sutegin, udal gobernu taldeko ordezkari Iratxe Begiristain eta aurreproiektua diseinatu duen "Rehabite"-ko kide bat.

Begiristainek argi adierazi moduan, "Udalak potentzialtasun handia ikusten dio proiektuari. Izan ere, lau eragileen arteko elkarlanetik sortua bada ere, uste dugu Usurbilgo herriaren eta herritarren hainbat beharrei erantzuteko balioko duela". Eragile haiekin lankidetzan ari da Udala. "Udal gobernuaren ere hasieratik egin dugu Elkargunearen aldeko apustua. Eragileek proiektua aurkeztu zigutenetik lanean aritu gara gauzatzeko urratsak ematen". Tartean, Arrobitxuloren kokagunea erabaki behar izan dute. "Proiektuaren bultzatzaileek hainbat proposamen egin zituzten, baina egokiena hori zela erabaki genuen, espazioaren tamainaren eta arauen aldetik, egun indarrean diren arau subsidiarioak zein behin-behinean onartu berri

dugun plan orokorrak espazio horretan udal ekipamendu bat aurreikusten duelako". Begiristainek gogorarazi zuen, erabiltzen ez diren eraikinak berritzea lehenetsi ohi dutela Udaletik berriak eraiki aurretik. "Baina kasu honetan, irudikatutako espazio berri horren ezaugarriak direla eta, ez genuen ezeren parekorik eta berri bat egin behar dugu".

Lekuarekin lotura

Rehabite arkitektura estudioak eginikoa da hain zuzen, Arrobitxuloren aurreproiektua. "Prozesuarekin oso gustura geratu gara", adierazi zuen Sutegiko ekitaldian hitza hartutako estudioko ordezkariak, Elkargunearen sustatzaileak eskertzearekin batera. Egitasmo hau bultzatu dutenen arteko lankidetzaren emaitza

dela nabarmendu zuen. Garrantzizkotzat jo zuen haien lan egiteko modua. "Guretzat garrantzia izaten du eraikinak zer lotura duen lekuarekin; nola eraldatzen duen lekua, zer espazio sortzen dituen". Rehabite-koek diseinatu zuten Kalezarko Egurtzegiren egoitza premisa horrekin; auzoaren lotzea nahi zuten. Abiapuntu bera izan du baita haientzat, Arrobitxuloren diseinu lanak. "Guretzako

"AZKEN FINEAN, BAI KANPOKO ETA BARRUKO GUNEAK BATERATZEA, GURETZAT HORI DA ELKARGUNEAK"

helburu nagusia, kanpo-espazio aberatsak lortzea eta barne-espazio horiek naturarekin edo kanpo-espazioarekin erlazio zuzen bat izatea" izan da.

Azal puskatua

Zelai batean kokatuko da Arrobitxulo. Baina argi zuten baitan, "lotura izan behar zuela aldameneko eraikinekin eta hortik sortzen dira bi ikuspuntu". Alde batetik, "eraikina asko irekitzen da natura aldeara atzealdean, baina era berean itxi egiten da hirirantz". Prozesuan zehar, "ateratako zailtza bat zen, fatxada, ez oso gogorra izatea. Horregatik planteatu dugu eraikin bat mugimenduarekin hiri aldera eta azala ere puskatua egotea, gogortasuna kendu eta barrukoa kanpoan islatzeko".

Eraikinean kanpo espazioak sortzeari emandako garrantzia nabarmendu zuen; sarrera, kanpo ekitaldiak egiteko eremua, anfiteatro txikia, "barrutik ere gune ezberdinak elkartzen dituen ibilbideak ere lortu ahal izatea". Azkenerako, "bai kanpoko eta barruko guneak bateratzea, guretzat hori da Elkargunea, eraikin barruan eta kanpoan gertatzen denaren arteko batura".

Kohesio hori bermatzeko "eraikina puskatu" dutela eman zuen aditzera. "Alde batetik, aretoa bereiztu egin dugu eta horrek ahalbidetu du, plaza estali bat izatea, barne patio bat eta horrek aisialdi gunearekin erlazio handia izatea, atzealdean beste sormen plaza bat lortzea...". Bigarrenik, natura eraikinean txertatzea hobetsi dute eta hori sabai naturalekin lortu dute. Hirugarrenik, "egurrezko azal bat egitea" proposatu dute. "Horrek naturaltasun hori indartu egiten du", eredugarritzat jo eta gogora ekarri zuen Zumarte Musika Eskolaren egoitzaren kasuan bezalaxe. "Eredu oso onak ditugu hemen eta horretan ere oinarritu gara, horri keinu bat egiteko".



Bidelagun berriak erakarri zituen igandeko kantu-jirak.

Bidelagun berriekin kantuan

Ohi baino kantu-jira jende-tsuagoa egin zuten otsailaren 23an. Sopela Kantari eta Kilo metrokantua Basauriko taldeekin aritu ziren kantuan usurbildarrak.



Bisitariak sagardoaren lurraldean barrena.

Sagardoaren ibilbidea osatu dute

Sagardoaren kulturaren barneratzeko aukera izan zuten otsailaren 23an 650 Usurbil Bizi egitasmoak estreinakoz antolaturiko ibilaldian. Martxoaren 23an berriz.



Txiskeroak taldekoek ekin zioten kontzertuen arratsaldeari Eliza Zaharrean.

Txiskeroak-ek piztu zuen giroa

Usurbilgo talde gazteak piztu zuen musika giroa otsailaren 22an, Aginagako Eliza Zaharra Elkarguneko kontzertuen arratsaldean, jarratzaileez ezin hobeto inguratuak zirela.



Izan Bai taldekoek Aginagan eskainitako lehen kontzertua.

Lehen kontzertu dardaratsua

Lehen diskoa argitaratu berrikan, estreinako kontzertua eskaini zuten otsailaren 22an Aginagako Eliza Zaharrean Izan Bai taldekoek. Emanaldi jendetsua izan zuten.



"Heriotzak Eduardo du izena" antzezlaneko protagonistak emanaldi amaieran.

Estreinaldi txalotua

Sutegiko auditorioa goraino bete zuen otsailaren 21ean, Formol Laborategiko eta Susa argitaletzekoen "Heriotzak Eduardo du izena" antzezlanaren estreinaldiak.



Musikari beratarrak pasa den igandean Sutegin eskainitako kontzertuko irudia.

Mende laurdeneko ibilbideari kantuan

Lehen diskoa kaleratu zutenetik 25 urte bete diren honetan, bere ibilbideko zukenkoa ari da grabatzen Petti. Sutegin izan zen pasa den otsailaren 23an.



Iñaki Errastik arraunlari izateari utzi dio eta aurrerantzean soilik entrenatzaile lanetan arituko da.

"Arraunak gauza asko kendu dizkit baina eman ere, asko eman dit"

IÑAKI ERRASTI ARRAUNLARI OHIA, ONDARROA ARRAUN TALDEKO ENTRENATZAILEA

46 urterekin hartu du erabakia. Fisikoki ondo aurkitzen bada ere, "gorputza baina, burua ari zitzaidan esaten horrela ezin nuela jarraitu". Azken urteotan arraunlari eta entrenatzaile lanak egin ditu Ondarroan. Aurrerantzean ordea, ez dugu traineru barruan gehiago ikusiko.

Arraunlari izateari utzi diozu aurtengo denboraldian. Kosta-ta hartu al duzu erabakia? Ala aspaldian ari zinen uzteko asmotan?

Lehengo urtean arraunlari izateari uzteko asmoarekin nenbilen, baina espero ez genuen arraunlari batek arrauna utzi beharra izan zuen egun batetik bestera, eta estropadak jokatu behar izan nituen. Baina aurten ez naiz entrenatzen ari, eta aurtengo bai dela segurua.

Gorputzak ala buruak eskatuta utzi duzu?

Edadean aurrera noa eta fisikoki nahiz eta ondo aurkitu, igartzen nuen gero eta gehiago kostatzen zitzaidala entrenamenduen martxa jarraitzea.

"ENTRENAMENDUEN MARTXA GERO ETA GEHIAGO KOSTATZEN ZITZAIKAN JARRAITZEA"

Nik lanarekin uztartzen dut arrauna eta, azkenean, 25-30 mutil zure esku dituzu eta beraien prestaketa antolatzen nahikoa denbora joaten zaizu. Eta horrez gain, arraunlari gisa

"25 URTEZ GERATU GABE ARITU NAIZ ARRAUNEAN. NIRE FAMILIAK ERE AHALEGIN HANDIA EGIN DU URTEOTAN"

ere entrenatzen jarraitu behar duzu.

Gainera, mutilei exijitzeko, nik ere eman beharra nuen niretik, eta desgastea handia zen.

Dena den, gorputza baina, burua ari zitzaidan esaten horrela ezin nuela jarraitu.

Beraz, arraunlari izateari utzi diozunetik, motxila handi bat kenduko zenuen gainetik.

Erabakia hartu eta berehala konturatu nintzen beharrezkoa nuela arraunlari zeregin-a uztea. Lasaitasun handia hartu dudalako. Orain, nire gauzak egiteko aukera dut asteburuetan. Eta lehen, dena zegoen arraunaren bueltan. Eta arraunetik kanpo, gorputzak eskatzen zidan deskantsatzea.

Zenbat urte egin dituzu puntan, lehian?

25 urtez geratu gabe aritu naiz arraunlari lanetan eta azken hamarrak arraunlari eta entrenatzaile lanetan eman ditut. Lehen bi urteak Orio B taldeko gazteekin, eta azken zortzi urteak lehen mailan, Ondarroarekin.

Arrauna oso lotua da. Neguan zein udan, ezta?

Batez ere udan. Nik ez dut oporrik ezagutu udan. Egia da ez zaidala kostatu, gustura egin dudana gauza bat izan delako eta guretzako lan baten modukoa izan delako. Gauza asko kendu dizkit baina eman ere, gauza asko eman dizkit arraunak. Duela 20 urte Astilleron izan nintzen, Cantabrian, eta hango jendearekin harremana mantentzen dut oraindik.

Nire familiak ere ahalegin handia egin du urteotan. Bikoteak eta seme-alabek beti ezagutu naute arraunean. Azken boladan gainera, Ondarroako prestakuntza-lana emaztea eta nire artean daramagu, eta bera ere taldeko beste partaide bat gehiago da.

—> **Ondarroan zortzi urte egin dituzu. Zuekin gustura dauden seinale, ezta?**

Berezia izan da hasieratik. Orio B taldean bi urtez entrenatzaile aritu ondoren, Ondarroak lehen mailako entrenatzaile izateko aukera eman zidan. Hasieratik oso maitatuak eta baloratuak sentitu gara. Zaleak eta direktibakoak familia baten modukoak dira, eta etxeak bezala hartu gaituzte. Entrenatzaile gisa, gauzak nire moduan egiteko aukera dut eta arraun taldekoak beti daude laguntzeko prest.

Ondarroara iritsi zinenetik hona, zertan aldatu dira gauzak?

Ni iritsi nintzenean jubenil mailan ez zegoen arraunlaririk. Oso gazteak bai, baina jubenilik ez. Urteotan lehen taldea lehen mailan egonda, ume asko apuntatu dira arraunnean, 100dik gora. Eta neskak, gehien bat. Eboluzio hori ikusi dut. Umeak zirenak nola joan diren hazten, eta senior mailara iristen. Bereziki aurren. 19 eta 20 urteko gazte asko ditut taldean, eta jubenil mailako batzuk ere gurekin ari dira. Taldean ziklo aldaketa bat eman da urteotan eta, aurrera begira, etorkizuna ziurtatuta dagoela esan daiteke.

Eusko Label ligan zaudete, maila gorenean. Goi mailan segitzeko presio hori ba al duzu?

Presio handiena, norberak bere buruari jartzen diona. Taldearentzat garrantzitsua da lehen mailan egotea. Babesleak lortzeko, dirulaguntzak eskuratzeko... Telebistak gainera, eragin handia du eta uda osoan herriko trainerua hor ikustea gauza handia da. Askok balio du. Talde hauek mantentzeko laguntzak ezinbestekoak dira eta lehen mailan egoteak hori dakar.

Denboraldi hasieran ordea, taldea berritu beharra izaten duzue.



"Trainerutik kanpo, entrenatzaile hobea izateko aukera izango dudala uste dut".

Urtetik urtera, destakatzen duten mutilak goiko muturrean dauden taldeetara joaten dira. Baina kanpokoak ekartzen hasi ordez, Ondarroan materiala edota ibilgailuak erosteko ahalegina egin dute. Kluba indartu eta bizirik sentitzeko. Kategoriaz jaitziko bagina ere, Ondarroako klubak bizirik jarraituko luke, jendea egongo litzateke. Ez zen beste talde batzuekin gertatu izan dena gertatuko hemen: urte batek bestera, mailaz jaitzi eta desagertzea. Alde horretatik,

"ONDARROA BEZALAKO TALDE BATENTZAT, GARRANTZITSUA DA LEHEN MAILARI EUSTEA"


kluba ondo ari da lanean eta ea aurrera begira ere halaxe segitzen duten. Nik uste dut Ondarroan arraunlariak egongo direla gerora ere, edo saiatuko gara egoten. Eta ahal bada, lehen mailan.

Denbora azkar doa eta konturatzeko lehian zaudete berriro. Aurtengoan ordea, kanpotik, zodiak batetik jarraitu beharko duzu zure arraunlarien lana. Orain urduriago ibiliko zara igual?

Igual ez, seguru baietz. Azaroan arraroa egiten zitzaidan

"TRAINERUTIK KANPO, MUTILEI GEHIAGO LAGUNTZEKO AUKERA IZANGO DUDALA USTE DUT"

baina ohitzen hasita nago. Barruan joanda, egoera gehiago kontrolatzen nuela iruditzen zitzaidan, baina azken hiru hilabete hauetako esperientziatik begira, uste dut kanpotik gehiago laguntzeko aukera izango dudala. Gainera, iruditzen zait kanpoan egonik, entrenatzaile hobea izateko aukera izango dudala. Baina egia da horrela gehiago sufrutuko dudala.



Ibilbide oparoa osatu du.

25 urtez arraunaren gailurrean

Arraunlari gisa egin duen ibilbidea:

- 2018-2024: Ondarroa Arraun Elkarte.
- 2014-2017: Orio.
- 2008-2013: Kaiku.
- 2007: Arkote.
- 2005-2006: Astillero.
- 2000-2004: Orio.

Entrenatzaile gisa egin duen ibilbidea:

- 2018tik hona: Ondarroa Arraun Elkarteko mutilen lehen taldea.
- 2016-2017: Orio B-ko entrenatzailea.

Denboraldiak elitean: 25.
Estropadak: 487.
Kontxako Banderak: 27.
Irabazitako ligak: 4.
Kontxako banderak: 2.

Iturriak: traineras.es, Eusko Label Liga.



Emakumeen Etxetik eginiko deialdiak bateraturiko 35. Lilatoiko herri ordezkaritza.

108 emakume herrikide 35. Lilatoian

Inoiz ez ditu herriko hainbeste lasterkari erakarri Donostiako 35. Lilatoiak. 108 emakumeek bat egin dute herri lasterketa horrekin.

6.200 emakumeek zuten dortsala, haietatik 5.322 izan ziren helmugaratu zirenak, haietatik 108 herrikideak. Izan ere, parte hartze marka hautsi dute aurren, Usurbilgo emakumeek. Guztira 108 herrikideek parte hartu zuten otsailaren 23an Gipuzkoako hiriburuko emakumezkoen lasterketa herrikoia 35. edizioan.

Hazten urtez urte

Inoiz ez da Usurbildik hainbesteko parte hartzerik izan. Segidan datorren zerrendan dituzue, azken hamarkada pasatzeko datuak. Usurbilgo emakumeen parte hartzean izandako bilakaera argia da; nabarmen hazi da. 2012an 17 emakume aritu ziren lasterka, 108 aurren.

Denbora tarte horretan, handitzen joan da herri ordezkaritza. 2012tik 2014ra 17tik 55era hazi zen; 2016tik 2018ra

36tik 63ra. Aurreko bi edizioetan, 2023koan eta 2024koan 80 emakume batu ziren Donostiako Lilatoian; aurren, 108.

Edizioz edizio

2012: 17.
2014: 55.
2015: 40.
2016: 36.
2018: 63.
2019: 76.
2020: 60.
2023: 80.
2024: 80.
2025: 108.

Elkarrekin prestatu eta parte hartu

Udaberri giro beteko eguna izan zuten lasterkariak Bulebarrean hasi, hirigunea zeharkatu eta abiaputuan amaitu-riko bost kilometroko ibilbidea osatzeko. Lasterka edota oinez aritu ziren emakumeak pasa

den igandeko Donostiako lasterketan. Gogoan izan, Kalezarko Pelaioren kokaturiko Usurbilgo Emakumeon Etxetik Lilatoia elkarrekin prestatu eta parte hartzeko deialdia egin zutela. Hortxe aurtengo emaitza; parte hartzean izandako marka haustea.

Emakumeen Etxeko deialdiak

Martxoak 5-6, asteazkena eta osteguna

Musika elektronikoa eta feminismoa uztartzen dituen KRII Kolektiboak DJ ikastaro labur bat emango du. Izen-ematea otsailaren 17tik 28ra izango da, Emakumeon Etxearen bidez.

Martxoak 8, larunbata

21:00 Pikoteo musikatua Arzabalaren. Martxoaren 5 eta

6ko "DJ ikastaroan parte hartutakoek ikasitakoak praktikan jartzeko aukera izango dute. Haien ostean, KRII Kolektiboko kideek ere parte hartuko dute".

Martxoak 20, osteguna

18:00 Iratxe Etxebarriaren "7.300 miligramo eszitalopram" liburuaren aurkezpena.

Apirilak 11, ostirala

17:30 Emakume eta gizon subjektutasunaren inguruko formakuntza saioa.

Zehaztasunak: "Egingo den tailer proposamenean, teoria feminista eta queerretan egin diren proposamen desberdinak ikusiko dira, zeintzuek tailerrean parte hartuko duten gizon, emakume zein pertsona ez binarioen arteko botere harremanen lanketa ahalbidetuko duten".

Maiatzak 15, osteguna

18:00 Uxue Alberdi Estibaritzaren "Hetero" liburu aurkezpena. Ondoren, solasaldia.

Maiatzak 24, larunbata

19:00 Evaren Alabak antzerki taldearen "Ring" antzezlanaren Suteigiko auditorioan.

Zehaztasunak: "Ring batean sartzen diren bi aktoreekin

hasiko da antzezlanana. Bata gizonez jantzita dago eta beste emakumez. Ikusleek ring-a inguratzen dute. Aurkezle batek pertsonaiak iragarri eta ikuskizuna hasten da".

Hizkuntza: elebiduna.

Emakumeen Etxeko zerbitzuak

Liburutegi feminista

Zehaztasunak: "Emakumeon Etxean liburu feministak dau-de eskuragarri: maileguan hartzeko aukera dago".

Aholkularitza juridiko eta psikosoziala

Zehaztasunak: "Zerbitzu honen bitartez, gai konplexuei buruzko informazio juridikoa eskaintzen dugu: banaketa, dibortzioa, emakumeen kontrako erasoei buruzko prozesu penalak, dibortzio prozesuetatik sortutako gatazkak, mantenu pentsioen ordainketa ezak, bisita erregimenen ez betetzeak, atzeritartasunarekin lotutako arazoak, etxeko langile zein gainontzeko langile emakumezkoen kaleratzeak, diskriminazioa, eskubideei buruzko informa-

zioa, laguntza sozialak eta bestelako kontsultak".

Zerbitzu egunak: martxoak 12, apirilak 9, maiatzak 21, ekainak 11, uztailak 9.
Ordutegia: 15:00-18:00.

Aholkularitza psikologikoa

Zehaztasunak: "Sexu aholkularitza zerbitzuaren erabilpen urria antzemanda, horren ordez aholkularitza psikologikoko zerbitzua eskaintzea erabaki da. Zerbitzuaren xedea pertsonen autoezagutza, ahal-duntzea eta autonomia sustatzen duten tresnak ematea da, norbanakoaren ongizate-

rako eta gizarte-eraldaketarako. Ikuspegi psikosozial, humanista eta transfeminista bermatuz eskaintzen da zerbitzua".

Zerbitzu egunak: martxoak 10 eta 31, apirilak 28, maiatzak 12 eta 26, ekainak 9 eta 23, uztailak 7.
Ordutegia: 15:00-19:00.

Informazio gehiagorako:

- emakumeonetxea@usurbil.eus
- 943 377 112.
- Ordutegia: astelehenetik ostiralera 10:00-13:00; astearte eta ostegunetan, 17:00-20:00 artean ere.

35. Lilatoiko sailkapena

Usurbil

- Oihane Juanena Muguruza: 24:40
Laiane Urdangarin Zubizarreta: 25:34
Arantxa Zubizarreta Pellejero: 25:41
Jone Alduntzin Alegria: 25:44
Maria Garcia Tardio: 25:45
Ane Udabe Maiz: 25:45
Leire Guisado Cobo: 26:48
Lina Mayerly Rincon Avellaneda: 29:15
Beatriz Irasuegui Salsamendi: 30:15
Luisa Rodriguez Moreno: 30:16
Marta Agirre Garitaonandia: 30:25
Larraitx Matxain Odriozola: 30:30
Ainhoa Azpirotz Eizmendi: 30:31
Nere Eizagirre Aizpuru: 30:31
Miren Maren Sasiain Ortuñez: 30:42
Lurdes Salaberria Garmendia: 31:09
Irati Iribar Fernandez: 31:16
Ana Dominguez Goiburu: 31:17
Kris Rodriguez Remigio: 31:18
Maier Tapia Alkorta: 32:01
Elena Rikondo Saenz: 32:02
Yolanda Arrieta Malaxetxebarria: 32:49
Olatz Aranzacastroqui: 32:51
Garazi Torrealdei Gorriti: 33:06
Maitane Rodas Alquizalet: 33:16
Carmen Vidal Urdampilleta: 33:38
Maria Dolores Elkano Irurtia: 33:38
Nuria Hernandez Fernandez: 33:42
Leire Errasti Amiano: 33:54
Eider Tapia Alkorta: 33:54
Alazne Castresana Etxeberria: 33:55
Isa Amo Arias: 34:19
Oroitz Etxaburu Uranga: 34:21
Sonia Garcia Rodriguez: 34:21
Nerea Goizueta Garmendia: 34:29

- Amaia Ullate Izagirre: 34:30
Laida Gonzalez Ibirriaga: 34:32
Olatz Lazkano Portu: 34:33
Yvonne Janariz Forcada: 34:33
Sara Zubizarreta Usabiaga: 35:01
Naia Rodriguez Agra: 35:01
Kattalin Armendariz Tolosa: 35:25
Maria Davila Zaldua: 35:25
Elixabete Udabe Pagola: 35:41
Amaia Etxeberria Mendizabal: 35:41
Maite Roteta Lizaso: 35:43
Eva Ugartemendia Gorriti: 35:54
Mertxe Aizpurua Izagirre: 35:54
Olatz Berasategi Ruiz: 35:57
Annette Marrero Fernández: 35:57
Onintza Gartzia Udabe: 36:28
Noelia Perez Alcalá: 36:38
Irati Portu Alzaga: 36:51
Agurtzane Solaberrieta Mesa: 36:52
Nagore Gonzalez Izagirre: 36:52
Igone Goikoetxea Balda: 36:53
Arantxa Usarralde Aranzadi: 36:54
Marian Sola Lizarrondo: 36:54
Eider Retegi Arruti: 36:54
Naiara Fernandez Perez: 36:55
Olatz Leoz Borda: 36:55
Irati Miguel Manterola: 36:55
Nora Etxeberria Matxain: 36:56
Placeres Lorenzo Manzano: 36:56
Maria Fernandez Delkader: 36:57
Malen Lanz Garcia de Eulate: 36:59
Iratxe Begiristain Otegi: 36:59
Olatz Matxain Zubillaga: 37:00
Oihana Sagarna Aranburu: 37:00
Miren Azkonobieta Mitxelena: 37:00
Arai G. de Eulate Azkonobieta: 37:01

- Libe Garcia de Eulate Soroa: 37:01
Itziar Dorronsoro Ariz: 37:02
June Labaka Zubimendi: 37:04
Maialen Sagarna Aranburu: 37:04
Noa Soroa Alzugaray: 37:05
Araia Soroa Alzugaray: 37:06
Ana Alzugaray Garcia: 37:07
Leire Lizarralde Aguirrezabal: 37:22
Ixone Santxez Encinas: 37:25
Josune Estella Arranz: 37:36
Natalia Martinez Castillo: 37:41
Marta Palma Alvarez: 37:41
Rocío Barbero Tomé: 37:42
Cristina Agra Bouzas: 37:42
Lur Etxeberria Gurrutxaga: 38:29
Ainhoa Bereziartua Uranga: 38:30
Aroa Alkorta Balbas: 38:30
Izaro Aizpurua Labaka: 38:31
Enara Urbistondo Arzak: 39:52
Nagore Lasa Dorronsoro: 39:54
Beatriz Gorriti Zuloaga: 40:51
Alicia Amo Arias: 41:54
Maria Socorro Matxain Imaz: 41:59
Arantxa Enetarriaga Rioja: 42:04
Julia Agudo Infante: 42:48
Aintzane Aizpurua Apezetxea: 42:49
Ainhoa Arruti Landa: 42:50
Diana Lobo Jiménez: 43:29
Melodie Marti Hidalgo: 45:07
Itziar Illarramendi Muxika: 47:25
Marian Bustamante Laderas: 51:42
Maria Larrea Iztueta: 51:45

Zubieta

- Mari Sanchez Gereka: 32:26
Alazne Olaizola Iparragirre: 38:21
Itziar Basterrika Unanue: 49:25
Edurne Arregi Iparragirre: 49:26
Reyes Leiva Martin: 49:26

Euskal Herriko Mus Txapelketako saioa

Herriz herriko sailkapen saioen fasean da eta ohi bezala, Usurbilen ere jokatu da kanporaketa bat. Igande honetan, Usurbilgo taberna ezberdinetan.

Bi berrikuntza nagusi dakartza aurtengoak; izan ere, ezohiko egun eta tokietan egingo da. Oraingo hau, igande bazkalostean izango da, martxoaren 2an. Horrez gain, Aitzagan egin izan den lehiaketa, herriko tabernetara hedatuko dute eta, beraz, leku batean baino gehiagotan egingo da lehiaketa. Bruño Mariskoak eta Aginaga zein Saizar sagardotegiek lagunduko dute ekimenean.

220 herritan

Euskal Herri osoko muslariak bildu eta antolatzeko boron-datetik sortu zuten Euskal Herriko Mus Federazioa eta bilgune hori da txapelketa nazional hau bideratzen duena. "Zazpi herrialdeetako muszale eta muslariez osatzen da eta gure herriak bizi duen zatiketa administratiboaz

gaindik, nazio bakar gisa antolatu eta garatzen dugu gure jarduna eta aldi berean nazio kontzientzia indartu. Musean jokatzeko dauden modu eta ohitura ezberdinei lekua eskaintzen diegu herrietako kanporaketetan eta ondoren, guztientzako joko arau eta irizpideak bateratu eta bat eginik antolatzen dugu Euskal Herri osoko txapelketa".

Euskal Herriko 16. Mus Txapelketa

Martxoak 2, igandea

16:00 Usurbilgo kanporaketa herriko tabernetan. Izen-emaitea 20 euroren truke Bentan.

Martxoak 22, larunbata

Zazpi herrialdeetako finalak; Gipuzkoakoa, 15:30etan Itsasondoko plazako frontoian.



4.000 pertsonak parte hartu ohi dute mus txapelketan.

Apirilak 5, larunbata

Finala Araban: Zigoitiako Gopengin.

50.000 euro baino gehiago sarietan

- Txapeldunak: txapela, garaikurra, 3.000 euro eta Kari-bera (dena barne) bidaia lau lagunentzat.
- Txapeldunordeak: garaikurra, 1.500 euro, bi lagunentzat Kari-bera (dena barne) bidaia.
- 3. bikote sailkatua: 750 euro eta asteburuko egonaldia lau lagunentzat.

- 4. bikote sailkatua: 500 euro eta euskaraz ikasteko urte osorako bi matrikula.
- 5.etik 8.era sailkaturiko bikoteentzat 250 euro.
- 9.etik 16.era sailkaturiko bikoteentzat 100 euro.
- Herrialdeko finaletan: txapelak, garaikurrak, asteburuko egonaldiak, afariak, bazkariak...
- Parte hartzaile bakoitzarentzat kamiseta bat parte hartzea eskertzeko.

Informazio gehiago:
ehmus.eus

Sarbide berria du Oiardo kiroldegia

Izan ere, aurrerantzean, orain arte bezala, abonatu txartel fisikoarekin edota QR bidez ere sartu ahalko da udal instalakuntza hauetara.

QR-a eskuratzeko, "NIK patrika digitala izeneko APP-a deskargatu behar da, eta BAKQ bidez identifikatu". Ezinbestekoa izango da hala egitea. Bestela, "BAKQ gabe ezingo da QRa eskuratu", argitu dute.

Familia abonuen kasuan, "gurasoei familiako txartel guztiak deskargatuko zaizkizue".

Eskualdean ere erabilgarri

QR sistema hau Usurbilgo Oiardo kiroldegian soilik ez, kirol zerbitzuak lankidetzan eskaintzen dituzten Buruntzaldeko lau udalerrietan izango da martxan; Usurbilez gain, Andoainen, Lasarte-Orian eta Urnietan.

Argibide gehiago behar duenak, "kiroldegiko harreratik pasa", galdegin dute. QR sistema baliatzeko aukera eskaini arren, txartel fisikoa erabiltzen segi ahalko da orain arte bezala.



Orain arteko txartel fisikoa baliatu daiteke, edota QR bidezko sistema.

Dantza latinoetan izena emateko aukera

Astean behin ordubeteko saioa egiten dute Zumarteko garbar. Gure Pakeak antolatzen badu ere, gazte zein heldu, interesa duten guztiek atea zabalik dituzte.

Bi egun aukeran

- Asteartetan: 16:40-19:40.
 - Ostegunetan: 16:00-17:00.
- Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, telefono zenbaki honetara deitu behar da: 655 731 915.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilen alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil 618773004

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 3 logelako bizilekua behar dugu alokairuan hartzeko. 688 653 441.

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA/KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadroko garajea salgai Etxealdian. T685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Zarauzko taberna batean pintxoak egiteko sukaldari bila gabea. Orduetgia astelehenetik larunbatera goizeko 8:00etatik arratsaldeko 15:00 arte, igande eta jai egunak libre. 661972670.

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati astean hirutan klase partikularrak emateko. Ikasturte osorako konpromisoa: 647 742 588.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Adineko pertsonak zaintzeko eskaintzen dut neure burua. 747446091 Michele

Paperak egunean ditudan neska bat naiz eta interna moduan edo orduka zaintza lanak edo garbiketa lanak egiteko lan bila nabil. 607455413.

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsalde (16:00-21:00) aritzeko prest. Telefono zenbakia: 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. 628 459 625

BESTELAKOAK

55 kilo inguruko aharia salgai Mahaspildegina. 943 364 461 (12:00-15:00 artean deitu).

Frantses irakasle baten bila ari gara, DBH4ko ikasle batentzat. 615758476.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarte Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitesia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potoxenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 371 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

ZORION-AGURRAK



Zorionak! Otsailaren 23an 50. maratonia egin zuenez, "zorionak aita", etxekoan partez!

Boleibola Oiardon

Martxoak 1 larunbata:

- 09:30 Kadeteak: Usurbil-Ostadar B
- 15:30 Jubenil neskak: Usurbil-Tolobolei B

Pilota Usurbilen

Otsailak 28 ostirala, 17:45

Infantilak 2. Maila, eskuz binaka: Pagazpe 2 - Tolosa 5
Pagazpe 1 - Tolosa 3

Futbol partidak

Haranen

Martxoak 1, larunbata

- 12:00 Jubenilak: Usurbil FT B-Sporting Herrera
- 15:30 Preferente neskak: Usurbil FT-Oiartzun KE C

Haranetik kanpo

Martxoak 1, larunbata

- 15:00 Infantil neskak, Beran: Gure Txokoa KKE-Usurbil FT
- 15:30 Preferente mutilak, Trintxerpen: Sanpedrotarra FE-Usurbil FT

- 17:00 Erregionalak, Donostiako Matigoxotegin:

Irauli Bosteko KK-Usurbil FT B

Martxoak 2, igandea

- 10:00 Infantil mutilak, Donostiako Matigoxotegin: Kostkas CD-Usurbil FT B

Eskubaloia Oiardon

Martxoak 1, larunbata

- 12:00 Senior mutilak: Saizar Usurbil KE-Erromoko B

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 28

USURBIL 'Inauteri Festa: Usurbilgo herri inauteriak'Usurbilgo inauteria. Urde badator!
18:30 Agerialdetik abiatuta.**USURBIL Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduaren sinadura bilketa**

19:30-21:00 Sutege atarian.

USURBIL Sarearen mobilizazioa

20:00 Mikel Laboa plazan.

LARUNBATA 01

USURBIL Inauteri Festa: SuperheroiaikMozorrotzeko gaia: superheroiaik. 18:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira. 22:30 Itzal erromeri taldearen emanaldia frontoian. Antolatzaileak: NOAUA! K.E. eta Orbeldi dantza taldea.
Egun osoko jarduera.

IGANDEA 23

USURBIL Euskal Herriko 16. Mus Txapelketako herri mailako saioa

Usurbilgo tabernetan. Izen-ematea: 16:00-16:30 artean, 20 euroren truke Bentan. Txapelketaren antolatzaileak: Euskal Herriko Mus Federazioa.



Igande honetan jokatu da, arratsalde partean, Usurbilgo tabernetan.

Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa

"Euskal Herrian ohikoenetako den mahai jokoa izanik eta mus txapelketa ezberdinak antolatzen direla ikusirik, Euskal Herri osoko muslariak bildu eta antolatzeko helburuari ekin genion", Mus Federazioak aditzera eman duenez.

Herriz herri jokatu da lehen fasea martxoaren 2ra arte, eta herrialdeetako fina-

lak martxoaren 22an izango dira zazpi herrialdeetan. Finala 2025eko apirilaren 5ean jokatu da Araban, Zigoitiko Gopegi herrian.

Usurbilgo kanporaketa

Igande honetan, martxoak 2, Usurbilgo tabernetan jokatu da. Izen-ematea, 16:00-16:30 artean, Bentan. Prezioa: 20 euro.

Superheroien eguna hemen da

Larunbat honetan ospatuko da Inauteri Festa eta 'Superheroiaik' izan da mozorrotzeko proposatu den gaia. Egun osoko festa izango da. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da Burrunbazale txarangaren kalejira eta 22:30ean Itzal erromeri taldea arituko da frontoian. Antolatzaileak: NOAUA! eta Orbeldi. Laguntzaileak: Zumarte, Kantu Taldea, Ziortza, Txirikorda eta Belmonte Auzo Elkartea.

Bisita gidatuak

Otsailak 26, asteazkena
10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.Otsailak 28, ostirala
10:00-11:15 Zaintza-ren Usurbil.Izen-ematea:
650usurbilbizi.eus

Martxoaren 3an, odola ematea

Martxoaren 3an, arratsaldeko 16:30etik 20:10era, Udarregi ikastolan. Bete beharreko baldintzak:

- Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela hona: 943 007 884.
- 18-65 urte artean izatea.
- 50 kilotik gora pisatzea.
- 12 urte baino lehenago hepatitis izan, kolesterol maila altua izan, baraurik egon ez edota ohiko botikaren bat hartzen baduzu ere, odola eman dezakezu.

ANDATZA TABERNA

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK8:00-20:30 Astelehenerdik - Asteazkenera
8:00-23:00 Ostegunetik - Igandera

Kaleazar Auzoa 12, 0B, USURBIL Tel 943 73 20 27

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

943 36 91 39

IHAUTERIAK 2025

ZEIN DA ZURE SUPERHEROIA?



OTSAILAK 28, OSTIRALA

18:30 USURBILGO INAUTERIA. Urde badator!
Herri-kalejira Agerialde-tik abiatuta.

Agerialde - Aranerreka - Txirikorda - Kalezar - Mikel Laboa Plaza

Mozorrotu eta etor zaitetz gurekin Usurbilgo inauteriaz goatzera!

MARTXOAK 1, LARUNBATA

18:00 BURRUNBAZALE txarangarekin kalejira.

22:30 ITZAL erromeri taldearen emanaldia frontoian.

LAGUNTZAILEAK: Zumarte Musika Eskola, Usurbilgo Euskal Kantu Taldea, Ziortza Gazte Elkarte, Txirikorda eta Belmonte Auzo Elkarte



Usurbilgo Udalak

Txotx!!

URDAIRA

Sagardotegia

943 37 26 91

Aginaga

Astelehenak eta Astearteak itxita

f @urdairasagardotegia | www.urdairasagardotegia.com

www.iruinsagardotegia.com



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA



Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Jai egun gauak
ITXITA

*Aurten ez da Txotx-ik egongo,
sagardoa botilan

Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



943 37 39 95

SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita

Tfno-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com



Astelehena eta Asteartea: **ITXITA**
Asteazkena eta Osteguna: **20:00-00:00**



AIALDE BERRI

SAGARDOTEGIA

☎ **943 36 50 31**

Ostirala eta Larunbata: **13:30-18:00 / 20:30-01:00**
Igandea: **13:30-18:00**

📍 **Santu enea Aialde-berri, 20170, Usurbil**